



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## PRENTSA-OHARRA

# ALDUNDIAK ADIERAZO DAUENEZ, ORAINDINO EZ DA Q SUKAR KASU GEHIAGORIK ATZEMAN ARTIGASEN

- **Amaia Antxustegi Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko diputatuak Bizkaiko Batzar Nagusietan emon dau bere sailaren jardunen barri, martian TMB plantan gaixotasun horren beste agerraldi bat izan zala ikusi ostean.**

(Bilbon, 2021eko maiatzaren 14an). Bizkaiko Foru Aldundia TMB plantan Q sukarra kutsatzearen ganeko ikerketaren jarraipena egiten ari da, eta, horretarako, planta hori kudeatzen dauen enpresari gaixotasuna eragin ahal izan dauen zergaitiaren ganeko informazioa eskatu deutso, eta jatorrizko fokua bertan egiten dan jardureagaz lotuta ete dagon be galdetu deutso. Momentuz, Aldundiak badaki Osalanek kasu “positibo” bat baieztu dauela, “ziurreneko” bi eta beste kasu “susmagarri” bat, EH Bilduk eskatuta Amaia Antxustegi Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatuak Bizkaiko Batzar Nagusietan egindako agerraldian baieztu dauenez. Osalanek bere azken txostenean ondorioztatu dauenez, “ezin da baieztu Q sukarraren kasu gehiago antzeman danik beharginen artean”, foru arduradunak azaldu dauenez.

TMB Arraiz ABEEren prebentzino-zerbitzuak beste proba batzuk egin eutsezan apirilaren 8an lantegiko “26 behargini”, agerraldia ez zala gehiagora joan egiaztetako. Horrela amaitu da Antxustegik egin dauen kontakizuna. Agerraldi horren barri izan ebenetik bere sailak emon dituan pausuak azaldu ditu Batzarretako taldeen aurrean. Hirugarren agerraldia da 2014tik. Halan, Aldundiak honeek eskatu ditu: osasun-zaintzaren txostena, hori egiteko kontratautako enpresak egina; prebentzinoaren eta osasunaren ganeko ABEEren barne-protokoloaren inguruko informazioa; ezarri beharreko neurrien betete-mailaren eta horreen funtzionamentuaren ganeko txosten xehatua; eta, beharrezkoak izan ezker, martxan jarri beharreko neurrien plana.

Agerraldia ezagutu zan unetik, Garbiker eta Aldundia egiten ari dan ikerketea jarraitzen ari dira, balizko kutsaduraren fokua plantaren jardureagaz lotuta dagon argitzeko. Kutsatze posible horren ikerketaren jarraipenari Bizkaiko Foru Aldundiak plantaren jardueraren ganean egiten ari dana gehitzen jako. Horren barruan, Garbiker aldizka alkartzen da TMB Arraiz ABEEagaz. Modu berean, kanpoko enpresa baten bidez (IMQ Osasuna) ikuskapenak egiten dira astero instalazioen egoera ezagutzeko.

Gaixotasun horren lehen agerraldia 2014an izan zan, eta 2018an errepikau zan. Iratxe Arriola EH Bilduko batzordekidearen berbetan, kasu horreek “martia eta apirila bitartean” gertatzen dira beti, arkumeak jaiotzen diran garaian,



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

sindikatuetakako ordezkariak salatu dabenez. Agerraldiak plantara animalien hondakinak dituen kamioiak iristen diralako sor daitekez. Lurraldean hiltegiak ez egoteak arazoa “larriagotu” daike, baserri batzuetan zelanbaiteko “klandestinidadea” dagolako.

Antxustegik azpimarratu dau diseinutako protokoloak “beti” jarraitzen dirala eta agerraldi bat dagon bakotxean “aldatu” egiten dirala, “hobetzeko”, baina ohartarazo dau ez dagola “zero arriskurik”, covid krisiak erakutsi dauen moduan. Azken urteotan, hobekuntzak egin dira plantan. 2018az geroztik, beste txanda bat dago, eta gaur egun Bizkaiko zenbait landa-eremutatik Zabalgarbira desbideratzen dira kamioiak, animalien hondakinak ez daitezana TMBra heldu.

## BESTE GAI BATZUK

Diputatuak agerraldia egin dau Batzar Nagusietan, Talde Berezia-PPBk eskatuta, bere saileko teknikariek martiaren 9an Barakaldoko Lorategi botanikoko urmaela garbitzeko egin zan hustuketa baten ostean bertako arrainak eroaten laguntzeko egindako lana azaltzeko. Antxustegik argitu dauenez, operazio horrek ez eban eragin lehendik egozan arrainak, peskarolak eta karpinak (espezie inbaditzaileak) lurraldeko ibai-arroetara eroatea, laku artifizial bereko beste sekzino batera eroan ziran.

Modu berean, Galeako itsaslabarretan hegaztien hazkuntza oztopatzen ari diran eskaladako bide batzuk dirala eta hautemandako arazo hipotetiko konpondu egin da. Aldundia hartu-emonetan jarri zan eskaladako materiala instalau eben personakaz, eta hareek horren barri ez eukiela eta materiala kentzeko “prestutasuna osoa” eukiela adierazo eben. Foru Aldundiak kartel bi jarri ditu kostaldeko eremu horretan eskalada baimenduta ez dagola jakinarazoteko.

Eta Elkarrekin Bizkaiak Sangroniz industrialdean, Sondikan, Asua errekatik ehun metro eskasera zabor kimikoaren zabortege bat dagola eta filtrazio kutsagarriak eragiten ari dalaren ganean galdetuta, diputatuak azaldu dau ez jagokola Aldundiari gai horren inguruko “erabakiak hartzea”, beraz, Eusko Jaurlaritzako “organu eskudunei neurriak hartzeko eskatuko deutse”, libixibiauak “kontrolpean” egon beharko litzatekezalako.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## NOTA DE PRENSA

# LA DIPUTACIÓN CONFIRMA QUE DE MOMENTO NO SE HAN DETECTADO NUEVOS CASOS DE FIEBRE Q EN ARTIGAS

- **La diputada de Sostenibilidad y Medio Natural, Amaia Antxustegi, informa en las Juntas Generales de Bizkaia de las actuaciones que su departamento ha llevado a cabo tras detectarse en marzo un nuevo rebrote de esta enfermedad en la planta TMB.**

(Bilbao, a 14 de mayo de 2021). La Diputación Foral de Bizkaia está realizando un seguimiento de la investigación sobre el contagio de fiebre Q en la planta de TMB detectado a finales de marzo, para lo cual ha requerido a la empresa que gestiona esta instalación información sobre el motivo que ha podido generar la enfermedad y sobre si el foco de origen está asociado con la actividad que se realiza en ella. De momento, a día de hoy, la Diputación tiene constancia de la confirmación por parte de Osalan de un caso “positivo”, dos “probables” y otro más “sospechoso”, según ha confirmado la diputada foral de Sostenibilidad y Medio Natural, Amaia Antxustegi en una comparecencia en las Juntas Generales de Bizkaia solicitada por EH Bildu. En su último informe Osalan concluye que “no se puede afirmar que se hayan detectado nuevos casos de fiebre Q entre los trabajadores”, según ha señalado la responsable foral.

El servicio preventivo de la UTE TMB Arraiz realizó el 8 de abril, nuevas pruebas a “26 trabajadores” de la planta en las que se constató que el brote no había ido a más. Así ha concluido el relato que ha hecho Antxustegi ante los grupos junteros en los que ha ido desgranado los pasos dados por su departamento desde que se tuvo conocimiento de este nuevo brote, el tercero desde el año 2014. Así, la Diputación ha solicitado el informe de vigilancia de salud emitido al respecto por la empresa contratada para su realización, información sobre el protocolo interno de la UTE sobre prevención y salud, un informe detallado del cumplimiento de las medidas a implantar y del funcionamiento de las mismas, así como el plan de medidas a implantar en el caso de que éstas fueran necesarias.

Desde el momento en que se conoce el brote, Garbiker y la Diputación están siguiendo la investigación que se viene realizando para esclarecer si el foco del posible contagio está vinculado a la actividad de la planta. El seguimiento sobre la investigación de este posible contagio se suma al que la Diputación Foral de Bizkaia viene realizando sobre la actividad de la planta, dentro de la cual Garbiker mantiene encuentros periódicos con la UTE TMB Arraiz y que



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

incluye también la realización a través de una empresa externa –IMQ Salud- de inspecciones semanales de la situación de las instalaciones.

El primer episodio de esta enfermedad tuvo lugar ya en 2014, para repetirse en el año 2018. Según la apoderada de EH Bildu Iratxe Arriola, estos casos ocurren siempre “en las mismas fechas, entre marzo y abril”, durante la época del nacimiento de los corderos, según han denunciado representantes sindicales. Los brotes pueden originarse porque a la planta llegan camiones con restos de animales. Además, la inexistencia de mataderos en el territorio puede estar “agravando” el problema, ya que existe cierta “clandestinidad” en algunos caseríos, ha denunciado, instando a la Diputación a ir “más allá para buscar soluciones”.

Antxustegi ha destacado que los protocolos diseñados “siempre se siguen” y que cada vez que existe un brote “se modifican para mejorarlos”, aunque ha advertido de que “no existe el riesgo cero”, como ha demostrado la crisis del covid. En los últimos años, en la planta se han introducido mejoras. Desde 2018 hay un turno más en la planta y actualmente se desvían los camiones a Zabalgarbi de ciertas zonas rurales de Bizkaia para prevenir que restos de animales no lleguen a la TMB.

## OTRAS CUESTIONES

La diputada ha comparecido también en las Juntas a petición del grupo Mixto-PPB para explicar la actuación de técnicos de su departamento el 9 de marzo en apoyo al traslado de peces del estanque del Jardín Botánico de Barakaldo por un vaciado para su limpieza. Antxustegi ha aclarado que dicha operación no supuso desplazar los ejemplares existentes, pescaroles y carpines, que son especies invasoras, a cuencas fluviales del territorio, sino a una sección cerrada del propio lago artificial.

Del mismo modo, el hipotético problema detectado en los acantilados de La Galea con algunas vías de escalada que pudieran estar entorpeciendo la cría de aves, se ha resuelto. La Diputación se puso en contacto con las personas que instalaron el material de escalada y éstas mostraron su desconocimiento y su “total disposición” a quitarlo. La institución foral ha instalado dos carteles para informar de que la escalada no está permitida en esta zona costera.

Y a preguntas de Elkarrekin Bizkaia sobre la existencia de un vertedero de basura química a escasos cien metros del río Asua en el polígono de Sangroniz, en Sondika, que pudiera estar originando filtrados contaminantes, la diputada ha explicado que “no corresponde a la Diputación tomar decisiones” sobre esta materia, por lo que “instarán a los órganos competentes” del



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Gobierno vasco a tomar medidas, porque los lixiviados “deberían estar controlados”.